

ELGOIBARREN EUSKARA SUSTATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA 2024-2028

(V. Plan estrategikoa)

Elgoibar, 2024ko azaroa



emun
Euskara eta
berrikuntza soziala

AURKIBIDEA

1. SARRERA	2
2. METODOLOGIA	4
3. EGOERAREN DIAGNOSTIKOA	6
3.1. DATU DEMOGRAFIKOAK ETA SOZIOEKONOMIKOAK.....	6
3.2. EUSKARAREN EZAGUTZA.....	9
3.3. EUSKARAREN ERABILERA	11
3.4. EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA	14
3.5. HEZKUNTZA.....	15
3.6. BEGIRADA BERRIA	16
4. AZTERKETA KUALITATIBOA	18
5. AURRERA BEGIRAKOAK	24
5.1. PLANAREN OINARRIAK.....	27
5.2. MISIOA, NAHI ESTRATEGIKOA, IKUSPEGIA	29
5.3. HELBURUAK ETA EKINTZAK	30
6. ARDATZ ESTRATEGIKOAK (ikusi I. eranskina)	
7. EGITURA	31
8. ADIERAZLE OROKORRAK	32

I. SARRERA

Euskararen egoera aldakorra da ezinbestean eta, beraz, komeni da etengabe nola gauden aztertzea eta gaiari buruz gogoeta egitea, Udalak aplikatu beharreko politikak eta hartu beharreko neurriak zehazteko eta, hartara, garai bakoitzeko premiei ahalik eta ondoen erantzuteko.

2003an onartu zuen Elgoibarko Udalak Euskara Biziberritzeko lehenengo Plan Estrategikoa, 2003-2007 eperakoa. Harrez geroztik lau-bost urtero diseinatu izan dira planak; azkena 2018-2023 tarterakoa.

Udalek bi plan onartu ohi dituzte hizkuntza normalizazioaren arloan, biak Eusko Jaurlaritzak finkatutako gidalerroei jarraiki:

- **Udaleko euskararen erabilera plana.** 2023an onartu zuen Elgoibarko Udalak VII. plana eta 2027ra arte egongo da indarrean. Udal administrazio barruko hizkuntza-politika eta ekintza-plana jasotzen dira dokumentu honetan.
- **Herrira begirako euskara plana.** Euskara Sustatzeko Ekintzen Plana (ESEP) 2018-23 izan da indarrean orain arte. Hasiera batean 2022ra arteko plana zen, baina Eusko Jaurlaritzaren gomendioz, plangintzaldia luzatu dute udalek urtebetez. Hurrengo bost urteetarako plana diseinatu behar da orain eta Jaurlaritzak “AROA Euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduntzeko marko estrategikoa” onetsi du ESEP ordezkatzeko.

Bi planen helburua da bai udalean bai herrian ohiko hizkuntza euskara izatea. Bigarren plan hori da, beraz, hemen jasotzen dena.

Elgoibarko Udalak Euskara Sustatzeko Plan estrategikoa berritzeari ekin zion 2022-2023an Emun aholkularitzaren eskutik eta prozesu parte hartzailea abian jarrita. Euskara Zerbitzuak Elgoibarko Izarraren parte hartze zuzena bultzatu nahi izan du prozesuan zehar, ezin baita ulertu bestela Elgoibarren euskarak izan duen bilakaera. Izan ere, Udalarekin elkarlanean diharduen elkarteak da hainbat ekintza kudeatzen eta dinamizatzen.

Elgoibarko azken planaren baitan, honako arloetan eragin da azken 5 urtetan: *familia transmisioa, irakaskuntza, euskalduntze-alfabetatzea, arlo sozioekonomikoa, kultura, ondarea eta corpusa, aisialdia eta kirola, udal administrazioa eta sentsibilizazioa eta motibazioa.*

Azken urteotan aldaketa garrantzizkoak gertatu dira, euskararen arloan: administrazioaren eta euskalgintzaren arteko elkarlan berriak, “Euskaraldia” hizkuntza ohituretan eragiteko egitasmo berria, hizkuntza aniztasunaren areagotzea, Euskararen marka berria, hizkuntza-teknologietan egindako aurrerapenak, ikus-entzunezkoen arloan izandako aldaketak, EAEko Udal Legearen eta hori garatzen duen dekretuaren onarpena, euskararen kaleko erabilerak hartu duen beheranzko joera, pandemiak eragindako aldaketak...

Elgoibarren ere nabari dira aldaketa horiek. Asko aurreratu dugu arlo batzuetan, hala nola, administrazioa eta esparru formaleko erabileran, baina bidean erroka berriak agertu zaizkigu: jatorri askotariko herritarrei edo euskaratik urrun daudenei euskarara eta euskal kulturara hurbiltzeko erraztasunak ematea, hizkuntza-aniztasunaren kudeaketa irakaskuntzan, ikastetxeen zailtasunak ikasle batzuk euskaldun aktibo bihurtzeko, erabilerari eusteko zailtasunak bereziki eremu informalean, herritarren kontzientziazioan etengabe eragin beharra...

Txostenean jaso dugu arloz arloko balorazioa Euskara Sailak berariaz landutakoa, baita ere prozesu parte hartzailearen ondorioz jaso dugun azterketa kualitatiboa.

Oinarrian izan ditugu baita ere datu kuantitatiboak, hala nola, datu demografikoak, sozio-ekonomikoak, euskararen ezagutza eta erabilerari buruzko datuak eta begirada berria ere gehitu nahi izan dugu, Iñaki Lurrebasoren eskutik jaso duguna, argigarria delako euskararen biziberritze prozesuan gertatzen direnak hobeto ulertzeko eta interbentzioak zehatzago planteatzeko.

Elgoibarko Udalak aurrera begirako ildo estrategiko nagusiak identifikatu ditu eta horiek lantzeko ekintza eta neurri proposamenak jaso ditugu dokumentu honetan. Kudeaketa egoki bideratzeko egitura, adierazleak eta jarraipen sistamarako proposamena baita ere, betiere, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak onartu duen AROA marko berria oinarri izanda.

AROA gizarte honen beharrei erantzun nahi dien marko estrategikoa da, eta balio nagusi hauek ditu: adostua, egingarria eta eragingarria izatea. Gizarteak azken hamar urteetan izan dituen aldaketei erantzun eta erakunde eta herritarrekin lankidetzan euskara indarberritzen jarraitzeko oinarriak finkatzen ditu.

Elkarlanerako proposamen markoa da, eta hamarkada baterako jomuga nagusiak zein izango diren zehazten du: (1) euskara ikasteko erraztasunak handitzea, (2) eskolaz kanpoko ekosistema euskaldunagoa lortzea, (3) ingurune digitalean euskarak leku gehiago izatea, (4) euskaraz lan egiteko aukerak ugartzea eta (5) euskarazko edukiak sortu eta kontsumitzeko aukerak ugartzea

Horiei guztiei heltzeko kudeaketa koordinatuan eta partekatuan oinarritzen den gobernantza eredua proposatzen du. Elgoibarko kasuan ere, planean zehaztutako ekimenak aurrera eramango dituen egitura berria planteatu da.

Euskara ardatz duten politikak bultzatu nahi ditu AROAk. Besteak beste, horrek dakar konpromiso politikoak hartzea, hizkuntza-politikaren erronkak egitura guztietan aplikatzea, lankidetzazko modu berriak...

Izan ere, euskararen ezagutza kopuruz gero eta handiagoa den garai honetan, euskara erabiltzen dugun hiztun kopurua igotzea da hurrengo erronka nagusia, eta horrekin batera, komunitatea handitu eta sendotzea.

Marko zabal hau Elgoibarko herriaren izaera, behar, helburu eta ahalmenenei egokitzeko ahaleginaren emaitza da txosten honetan jasotzen dena. Marko aproposa da jauzi kualitatiboak egiteko, esate baterako, herrian euskararen aldeko sentsibilizazio-lana egiteko, euskararen aldeko jarrerak, jokabideak eta konpromisoak aktibatzeke, edota euskara sustatzeko lanean ari diren elkarte eta erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzazko areagotzeko.

Marko berri honen ikuspegia hurrengo hamarkada osoari begirakoa da, eta halaxe jaso dugu Elgoibarko Euskararen 2024-2028 Plan Estrategiko honetan ere. Planaren iraupena 5 urtekoa izango da, baina marko berriak ezartzen dituen eta aurreraxeago zehaztu ditugun ikuspegiak, misioak eta nahi estrategikoak irismen luzeagoa izango dute, eta hurrengo bosturtekoari dagokion plan estrategikoan ere indarrean izango dira.

2. METODOLOGIA


AROAren plana egiteko metodologiak lau urrats nagusi izan ditu:



AURRELANAK

Aurrelanetan prozesu osoa diseinatu zen: kronograma zehatza, herritarrek parte hartzeko une eta formatuak, prozesua aurrera eramateko egiturak eta rolak, eta komunikazio lanak.

Hona hemen prozesurako sortu ziren egiturak eta horien egitekoak:



TALDE ERAGILEA

Prozesuaren koordinazioa eta komunikazioa.

- Euskara zinegotzia
- Udaleko Euskara zerbitzua
- EMUNeko aholkulariak



KONTRASTE TALDEA

Prozesuan zehar egiten denaren analisisa, interpretazioa eta kontrastea.

Ahuleziak eta indarguneak identifikatu eta aztertu ziren



SAIOAK: HERRITARRAK/ERAGILEAK

Arlo bakoitzeko erronkak eta ideiak identifikatu.

Hezkuntza, aisialdia, kirola, kultura, lan mundua, merkataritza, ostalaritza, euskalduntze-alfabetatzea...

DIAGNOSTIKOA

Udalaren Euskara Sailak orain arte egindakoa jaso du. Guztira 77 ekintza landu dira 15 esparrutan. Egindako kontrasteetatik orain artekoari bestelako begirada bat gehitu nahi izan zaio. Datu kuantitatiboak dagokionez, batez ere, 2016-2022ko datuak ekarri ditugu txostenera.

- Datu soziolinguistiko batzuk batu eta horien gaineko analisisa egin da
- Euskara Zerbitzuak aurreko plan estrategikoaren gaineko balorazioa egin du arlorik arlo.
- Egindako diagnostikoaren datu esanguratsuak Kontraste Taldean eta herritar/eragileekin egindako saioetan aurkeztu dira. Saio horietan arloz arloko hausnarketa egin eta gero, zenbait foku edo eragin eremu identifikatu dira.

DISEINUA

Plan berria eraikitzeko prozesua abian jartzeko diagnostiko kualitatibo bat egin dugu eta honako eragileek hartu dute parte:

- Udaleko eragileak: 10 (Euskara saileko eta Herritartasun arloko Koordinazio taldeko kideak).
- Herritarrak: 12 elkarrizketa egin dira.
- Lan-mahaietan parte hartu duten herritarrak/eragileak: 10 izan dira.

Elkarrizketak	Guztira 12 elkarrizketa egin dira. Honako esparruetarako informazioa lortu da: <u><i>Familia transmisioa, Irakaskuntza, Euskalduntze-Alfabetatzea, Aisia-Kirola, Merkataritza-Ostalaritza-Enpresak, Gazteak, Jatorri askotariko herritarrak.</i></u> Elkarrizketatuen iritziak eta ekarpenak jaso dira eta jasotakoa modu honetara antolatu: <i>zer jarraitu behar dugun egiten, zer indartu behar dugun, zer ez dugun berriro egin behar eta zer egin behar den berria.</i>
Lan mahaiak	Herritar talde batek parte hartu du elkarrizketetan jasotakoa osatzen. Azken kontrastea ere haiekin egin da. Lan-mahai horretan parte hartu dute ondorengo arloetako kideek: Transmisioa, Irakaskuntza, Euskalduntze-Alfabetatzea, Arlo sozioekonomikoa, Gazteak, Elgoibarko Izarra eta Udaleko Euskara Saila.
Udal teknikariak	Bereziki, kudeaketa arloari buruz egin da kontrastea haiekin.
Elgoibarko Izarra	Lan-mahaian parte hartu du eta bakarkako kontrasteak ere egin dira elkartarekin.
Herritartasun Batzordea	Udal barruan planaren jarraipena egitea dagokion organoa izanik, bertan egin da proposamenaren kontrastea ekarpenak jasotzeko.

Jasotakoak baliagarriak dira aurrera begirako AROA antolatzeke eta garatzeko, eta Udalaren eta Euskara Sailaren funtzionamenduan hainbat hobekuntza identifikatzeko ere. Esaterako:

- Komunikazioan hobetu beharra eta kasu batzuetan bestelako bideak aztertzea.
- Ekintzak eta emaitzen arteko oreka lortzea. 5 urtetarako lehentasunezko esparruak identifikatzea.
- Herritarrak aktibatzea helburu, Udala bidelagun izanik.

3. EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

Elgoibarren Euskara Sustatzeko 2018-2023 ekintza planean hiru helburu estrategikoei loturiko neurri-ekintzak burutu dira. Kontuan izan behar dugu Covid pandemiak eragindako urteak izan direla eta plangintzaldi honetarako aurreikusitako ekintzetan ere eragina izan duela horrek. Ekintza gehienak burutu badira ere, egoerara egokitu behar izan dira, eta kalean antolatzen ziren egitasmo batzuek etena izan dute pandemia garaian.

Hona hemen **ekintzen betetze maila**:

URTEA	NEURRIAK	EKINTZAK	BETETZE MAILA %
2018	38	75	98,66
2019	38	77	94,40
2020	37	71	92,95
2021	37	75	89,33
2022	38	76	97
2023	38	75	95
Guztira	37-38	74-75	94,55

ESEPen 2018-23 plangintzaldiko balorazioa egin du Euskara Sailak. Egindako kontrasteetatik orain artekoari bestelako begirada bat gehitu nahi izan zaio. Datu kuantitatiboei dagokionez, nagusiki, 2016-2021-2022ko datuak ekarri ditugu txostenera. Hala ere, 2021eko erroldako datu asko oraindik ere eskura ez daude.

Erronka berriei aurre egiteko, geldialdi bat egin eta aurrerantzean zein bide hartu hausnartu dugu Elgoibarren, eragile ezberdinekin egindako lan-mahaien bidez eta arlo ezberdinetako norbanakoekin egindako elkarrizketen bidez. Badakigu, hala ere, euskararen erabileran eragingo duten faktore asko eta asko gure eragin-eremutik kanpo daudela.

Hainbat datu ekarri ditugu txostenera, esanguratsuenak direnak etorkizuneko interbentzioak kokatzeko garrantzitsuenak direnak. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzak ESEP 2012-2022 balantzetik jasotako ondorio batzuk ere gehitu ditugu azalpen argigarri gisa, JAKINGARRIAK deitu diogun atalean.

3.1. DATU DEMOGRAFIKOAK ETA SOZIOEKONOMIKOAK

Elgoibarren 11.585 herritar bizi dira (2024ko datu ofiziala). Udalerria **Debabarreneko eskualdean** kokatuta dago. Eskualdea herri hauek osatzen dute: Mallabia, Ermua, Eibar, Soraluze, Elgoibar, Mendaro, Deba eta Mutriku. Eskualdeko biztanleen bi heren Ermuan, Eibarren eta Elgoibarren bizi dira.

Oso **herri ezberdinak** dira, **baita soziolinguistikoki** ere, gainera, Bizkaiko bi herri ere badira tartean: Ermua eta Mallabia. Euskaldunen kopuruari erreparatzen badiogu, Ermuan euskaldunak %33,64 izatetik Mutriku %84,50era igarotzen da. Hona hemen, herriz herri euskaldun kopurua (2021eko errolda)

Herria	Euskaldunak % (2021)
Ermua	33,64
Eibar	53,43
Soraluze	58,26
Elgoibar	61,73
Mallabia	69,09
Mendaro	69,71
Deba	75,37
Mutriku	84,50

Elgoibar sakonago erakusteko, azken urteotako datuak jarri ditugu hurrengo irudian, datu demografikoak, alde batetik, eta datu sozioekonomikoak, bestetik.



Iturria: Elgoibarko Udala, EUSTAT 2020-2022

Datu demografikoak (Eustat 2012-2022)

ELGOIBAR	2012	2022	OHARRAK
Udalerriko azalera: Ha	3.920	3.883	
Biztanleak	11.329	11.394	
<i>Gizonak</i>	5.626	5.597	
<i>Emakumeak</i>	5.673	5.797	
<i>0-19 urte</i>	2.024	2.283	
<i>20-64 urte</i>	6.920	6.446	
<i>>=65 urte</i>	2.385	2.665	
Biztanle dentsitatea: bizt./km ²	289,67	293,43	
Atzerrian jaiotako biztanleria	865	1.404	
EAEtik kanpo jaiotakoak	2.760	2.936	
Goi mailako ikasketadunak %	10,71	15,08	
Euskaldunak %	58,11	61,73	2011-2021eko datuak
<i>1a euskaldunak % 2011-2021</i>	22,27	16,07	2011-2021eko datuak
<i>Erdaldunak % 2011-2021</i>	19,62	22,19	2011-2021eko datuak
Langabezia tasa % 2010-2021	8,4	8,9	2011-2021eko datuak
Balio erantsi gordina sektoreka %:			
<i>Nekazaritza,Abeltzaintza,Arrantza</i>	0,2	0,4	2012-2020ko datuak
<i>Industria eta Energia</i>	59,2	55,7	2012-2020ko datuak
<i>Eraikuntza</i>	3,0	2,37	2012-2020ko datuak
Zerbitzuak:	37,5	41,4	2012-2020ko datuak
<i>Merkataritza, Ostalaritza, Garraioa</i>	13,5	12,6	2012-2020ko datuak
<i>Administrazioa, Hezkuntza, Osasun eta gizarte zerbitzuak</i>	8,4	9,9	2012-2020ko datuak
<i>Gainerako zerbitzuak</i>	15,6	18,9	2012-2020ko datuak

Enpresa ehuna	Elgoibar	Eskualdea	Gipuzkoa	EAE
Enpresa txikiek sortutako lanpostuak (0-9 langile)	27,33	33,54	33,87	32,93
Industria enpresa ertainak	16,98	13,92	16,37	16,2
Industria sektoreko establezimenduak (%)	19,88	13,34	7,59	6,48
Eraikuntza sektoreko establezimenduak (%)	7,9	7,9	11,91	11,92
Zerbitzu sektoreko establezimenduak (%)	67,42	74,25	77,47	78,29
Lehen sektoreko establezimenduak (%)	4,79	4,49	3,01	3,28

Iturria: Udalmap

Hurrenez hurren zerbitzu sektoreko establezimenduak nagusitzen dira Elgoibarren eta ondoren industria sektoreko establezimenduak. Azken datu honi dagokionez, nabarmen altuagoa da eskualdearekin konparatuz gero, are gehiago Gipuzkoa eta EAEko datuarekin konparatuta. Gainera, industria jarduera BEGren % 55,7 da Elgoibarren.

Nabarmentzekoak:

- Atzerrian jaiotako biztanleen kopurua %12,3koa da. 2016ko datuari erreparatuta 3 puntu egin du gora, 9,55. Euskara biziberritze prozesuan Euskara Sailak interbentzioak planteatzeko orduan kontuan izateko datua da.

Atzerriko jaioterria dutenak

2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
9,55	9,87	10,21	10,89	11,53	11,74	12,3

Iturria: EUSTAT

2022an Elgoibarko **Hizkuntza Aniztasunaren Mapa** egin zuen Udalak Soziolinguistika Klusterraren laguntzaz, eta herriko hizkuntza aniztasunaren kudeaketa egokia egiteko lagungarri izango da. Maparen arabera, Elgoibarren nazionalitate espainiarra dutenak %87,7 dira, beraz, gainerako 12,3a jatorri atzerritarrekoa da. Biztanleriaren sexu-banaketari dagokionean, jatorri atzerritarrekoen artean emakumeak % 51,9 dira. Amerikako jatorria dutenen artean 169 emakume gehiago dira gizonezkoak baino. Aldiz, Afrika, Asia eta Europako jatorria dutenen artean gizonak gehiago dira.


Jatorri atzerritarreko biztanleak 52 estatu ezberdinetan dute euren jatorria; horietatik, %92,9k 20 estatutan, eta gainerako %7,1ak 32 estatutan. Hona hemen jatorri nagusiak hurrenkeraren arabera: Maroko, Nikaragua, Bolivia, Portugal, Pakistan, Errumania, Kuba, Senegal eta Ekuador.

Jatorri atzerritarreko biztanleriaren artean %49,2k gaztelania du hizkuntza ofiziala jatorrian, kasu batzuetan beste hizkuntza batzuekin batera: aimara, guarania, mapudunguna eta ketxua. Gainerakoen artean nagusi dira arabiera eta amazigera. Frantsesa, portugesa eta ingelesa ere hortxe dira. Urduak eta punjaberak ere presentzia esanguratsua izan dezakete herrian, baita errumanierak ere, eta presentzia gutxiagorekin wolof, fula, serer eta diola.

Hizkuntza kudeaketaren aldetik, oso kontuan izatekoa da, jatorrian gaztelania ofiziala duten herritarrek leku eta presentzia berezi dutela Elgoibarren, %49,2 baitira, jatorri atzerritarreko biztanleen ia erdia.

3.2. EUSKARAREN EZAGUTZA


Hizkuntza gaitasuna 2021 (%)



- 2021eko erroldaren arabera, biztanleen % 61,73 da euskalduna eta %16,07 ia-euskalduna.
- Euskararen ezagutzaren datua mantendu egin da 2016ko datuarekin konparatuz, izan ere % 62 zen 2016an.
- Erdaldunak, ere mantendu, % 22,19 izatetik % 22,52 izatera. Datu hauek erakusten dute ia hiru elgoibartarretatik bi euskaldunak direla.

Iturria: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak, 2021


02-34 urte arteko ezagutza (%)



- Euskararen ezagutza maila altuena 34 urtetik beherakoek dute, hauen artean %81a euskalduna baita.


Iturria: 02-34 urte arteko datuak EAS, 2016

2011-2016-2021 urteetako ezagutza (%)



- Bilakaerari dagokionez, euskaldunen ehunekoak 3,62 puntu egin du gora hamar urtean.
- Erdaldunek ere gora egin dute.
- ia euskaldunek behera, 6 puntu jaitsi dira hamar urtean.


Lehen hizkuntza 2021 (%)



Iturria: EUSTAT, 2021

- Herritarren %52aren lehen hizkuntza gaztelania edo beste hizkuntza bat da.
- Gaur egun Elgoibarren 42 nazionalitateko jendea bizi da

Lehen hizkuntzaren bilakaera 2011-2021



- Bilakaerari erreparatzeko 2011ko datuak eta 2021ekoak konparatu ditugu. Gorakada dago lehen hizkuntza biak eta beste hizkuntza bat duten herritarren artean.
- Gutxiago dira etxean euskara bakarrik edo gaztelania bakarrik jasotzen dutenak.

Iturria: EUSTAT, 2021

Lehen hizkuntza: euskaldun zaharrak eta jatorrizko elebidunak 2016

Lehen hizkuntza (EAS) Elgoibar 2016	Guztira	+70	55-69	40-54	25-39	5-24
Euskaldun zaharrak %	39,4	50,25	37,48	36,38	30,95	40,19
Jatorrizko elebidunak %	47,90	52,39	42,83	42,22	39,63	55,25


Iturria: EAS 2016 (ez dugu 2021eko datuak adinka)

- 70etik gorakoen artean dago euskaldun zaharren ehunekoik altuena. Eta jatorrizko elebidunen ehunekoik altuena 24 urte bitartekoan artean dago baina hurrengo adin tartean (25-39) ehuneko horrek behera egiten du.

JAKINGARRIAK

- **Lehen hizkuntza: umeak 3 urte bete arte gurasoengandik edo umearekin bizi diren senitartekoengandik** eskuratutako hizkuntza edo hizkuntzak.
- 2016ko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistikaren arabera, EAEn 5 urte edo gehiagoko biztanleen %18,3k euskara soilik eskuratu du etxean eta beste %5,7k euskara eta gaztelania eskuratu ditu. Era berean, %71,7k gaztelania soilik eskuratu du etxean. Azkenik, %4,4k euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat eskuratu du.


Lehen hizkuntza: 02-14 urte artekoak 2016



→ 2016an 14 urtetik beherakoen lehen hizkuntza euskara zen %40an, eta biak (euskara eta gaztelania) %16an, beraz, haurren lehen hizkuntzan euskararen igoera txiki bat izan da. Ea zer esaten diguten 2021eko datuek.

Irudia: 02-14 urteko datuak, Elgoibar, EUSTAT 2016 (ez dugu 2021eko daturik adinka)

Lehen hizkuntza: 15-34 urte artekoak 2016




→ 2016an jaitsiera nabarmena etxean euskara soilik eta gaztelania soilik jaso dutenen artean eta, aldiz, EAEko joera orokorra jarraituz, igoera nabarmena etxean gaztelania/euskara, bi hizkuntza jaso dituztenen ehunekoan eta beste hizkuntza bat jaso dutenen ehunekoan ere bai. Ea zer esaten diguten 2021eko datuek.

Irudia: 15-34 urteko datuak, Elgoibar, EUSTAT

3.3. EUSKARAREN ERABILERA

Elgoibarren euskararen erabilera zenbatekoa den zehaztuko dugu atal honetan, etxean, kalean, adin tarte desberdinetan eta esparru zehatzetan, hala nola, kirolean.

Etxeko erabileraren bilakaera 1991-2021 (%)




→ 1991tik gaur egun arte etxeko erabileran euskarak behera egin du.

→ 2 joera ari dira nagusitzen: beste hizkuntzen erabilera eta euskara eta gaztelania, biak batera, erabiltzeko joera. EAE mailako joerekin bat dator.

Iturria: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak

Etxeko erabileraren bilakaera 2011-2021 (%)




Iturria: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak

JAKINGARRIAK:

- Lehen hizkuntzak eragin handia du etxeko erabileran. Izan ere, lehen hizkuntzak lotura zuzena du hizkuntza erabiltzeko erraztasunarekin, eta **erraztasuna da**, harreman-sarearekin batera, **euskararen erabilera baldintzatzen duen faktore nagusia**.
- 1991-2016 bitarteko bilakaerari dagokionez, etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekoa jaitsi egin da euskaldun zaharren artean (-2,8 puntu) eta igo jatorrizko elebidunen (4,3 puntu) eta euskaldun berrien artean (2,8 puntu).

ERABILERA



Iturria: Kale-erabileraren neurketa, Soziolinguistika Klusterra

Kale Erabilerari buruz labur:

- 2011n eta 2017an egindako neurketen arabera, kaleko erabilera % 36an mantendu da.
- Paseo eta jolasleketan erabili ohi da euskara gehien (%43,1). Jarraian, ikasleen irteerak (%35,2), gazte edo txikiteo giroa (%30,8) eta etxetik kanpoko familia giroa (%28) ditugu. Azkenik, erosketa giroan entzun da euskara gutxien (%23).
- Emakumezkoek (%39,0) gizonezkoek (%31,6) baino euskara gehiago erabiltzen dute.
- Haurrak (2-14 urte bitartekoak) dira euskara gehien erabiltzen dutenak (%55,3). Jarraian, helduak (25-64 urte bitartekoak) izan dira euskaraz gehiago entzun ditugunak (%32,5). Gazteak (15-24 urte bitartekoak) %25,1ean erabiltzen dute euskara. Azkenik, adinekoak (64 urtetik gorakoak) dira euskaraz gutxien entzun ditugunak (%24,5).

- ↳ Haurrak bakarrik (nagusirik gabe) daudenean %43,9 da euskarazko erabilera. Nagusiek, euren artean (haurrik gabe) ari direnean, %22,7an darabilte euskara. Haurrek eta helduek osatutako taldeetan, berriz, %58,9ra igotzen da erabilera.
- ↳ Hurrez eta nagusiez osatutako taldeetan, haurra hitz egiten ari bada erabilera altuagoa da (%65,9), nagusia hitz egiten ari denean baino (%49,6)
- ↳ Gazteen erabilera -7 puntu baxuagoa da Gipuzkoako batez bestekoarekiko. Beraz, datu horren bilakaerari erreparatzea komeni da.




Iturria: Elgoibarko Udala, Soziolinguistika Klusterra 2017

Erabilera kirolean:

- ↳ **Entrenamenduetan Eskola Kirolean baino baxuagoa da erabilera.**
- ↳ Eta, entrenamenduetara etorri gero, **emakumezkoen erabilera nabarmen altuagoa da** gizonezkoena baino.

Kirolarekin jarraituz, 2012an egindako neurketak ekarriko ditugu gogora eta 2022ko datuarekin konparatu. Elgoibarko kirol elkarteek egiten duten euskarazko eskaintzan igoera nabarmena izan da ordutik. Entrenatzaileen erabileran dago jaitsiera.



BESTELAKO DATU BATZUK



Irudia: Elgoibarko Udaleko datuak


Herritarren erabilerari buruz labur:

- Elgoibarko herritarrek Elgoibarko zerbitzuetan euskaraz dagoen eskaintzaren aprobetxamendua zenbatean egiten den euskaraz adierazten dute datu hauek, arlo desberdinetan.
- Hainbat dira erabileran eragiten duten faktoreak: zerbitzu-hartzailearen erraztasuna, zerbitzua eskaintzen duenaren proaktibotasuna, etab.

3.4. EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA

Azken urteetako matrikulazioa Elgoibarko bi euskaltegietan.

Elgoibarko euskaltegietako matrikulazio datuak



- Herriko euskaltegietako ikasle kopuruetan ez da aldaketa handirik izan azken urteotan.
- Ikasle talde homogeenak sortzeko arazoak ere ugaritu egin dira.
- AISA taldeak. AISA ikastaroak euskarara hurbiltzeko harrera-ikastaroak dira, eta normalean talde bakarra sortzen da ikasturtean zehar.

Iturria: Elgoibarko Udala

Euskalduntze-alfabetatze datuak

Elgoibar	2011	2016	2021
Euskaldunak	58,11	62,27	61,73
Euskaldun alfabetatuak	43,53	53,02	50,43
Euskaldun erdi-alfabetatuak	11,90	6,87	7,61
Euskaldun alfabetatu gabeak	2,68	2,38	3,69

- Alfabetatze datuei dagokienez, datua positiboa da, gure herriko euskaldunen %81,68 alfabetatuak baitira, eta %12,33 erdi alfabetatuak.

Iturria: EUSTAT

- “Ostalaritza” eta “Industria” sektoreetan lan egiteko behar diren euskarazko gutxieneko komunikazio gaitasuna lortzeko **Euskara Plus** ikastaroetan **20 lagunek** jardun zuten 2016an.
- Tertuliak:** azken urteetan, ikasturtero, batez beste, **35-40 lagun** aritzen dira parte hartzen egitasmoan, **10 bidelagun** eta **35 bidelari**. Helburua euskaltegietan ikasitako edo ikasten ari diren euskara kalera atera eta erabiltzea, hortaz, ezagutzatik erabilerara dagoen jauzia egitea.

JAKINGARRIAK

- 2019/2020 ikasturtean 35.491 ikasle aritu ziren EAEn euskara ikasten, maila desberdinetan. Ikasle gehien C1 mailan eta B2 mailan matrikulatu ziren (%30,1 eta %25,3 hurrenez hurren). A1 mailan %15,3 aritu zen, A2 mailan %11,7 eta B1 mailan %13,6. Matrikulaziorik txikiena C2 mailan eta Z mailan izan zen (%3,1 eta %0,9 hurrenez hurren).
- Z mailan sartzen dira Helduak Euskalduntzeko Oinarrizko Curriculum esparrutik kanpo dauden ikastaroak, esate baterako, Euskaltzaindiaren azken arauak ezagutzeko ikastaroak, hitanoaren gainekoak, euskalkia lantzekoak... Maila hau lehen Goi-maila deitzen zen haren parekoa da.


3.5. HEZKUNTZA

Azken 20 urteetan, D eredia % 60,2tik %94,46ra igo da, B eredia desagertu egin da eta A eredia %3,23ra jaitsi da. D eredia nagusitu egin da irakaskuntzako maila guztietan.

Elgoibarko Araubide Orokorreko irakaskuntzan nagusi da D eredia:

	2019/2020	2020/2021
Guztira	2.968	2.964
A eredia	1,61	1,48
B eredia %	3,23	4,04
D eredia %	95,14	94,46

D ereduaren bilakaera Lanbide Heziketan (%)



- Aipagarria da azken urteetan Lanbide Heziketan IMHk eta MEKak egiten ari diren ahalegina D eredia sustatzeko.
- Goi mailan D ereduaren jaitsiera txikia eman da, baina datua oso altua da.

JAKINGARRIAK


- ↪ Hizkuntza-ereduen ehunekoa asko aldatu da azken 20 ikasturteotan. 2001/2002 ikasturtean, lau erduetatik ikasle gehien D erduan matrikulatuta bazegoen ere, ez zen erdira iristen. 20 urte geroago, D erduak hazkunde handia izan du: 94,46ra igo da Araubide Orokorreko Irakaskuntzan, eta Lanbide Heziketan, erdi mailan %85,19ra iritsi da eta Goi mailakoan %91,97ra. A erduari dagokionez, D erduaren kontrakoa gertatu da: ia 20 puntu jaitsi da.
- ↪ B erdua: Eredu honetan askotan ikasgai gehiago euskaraz ematen badira ere, ikasgai komunak direnak (matematika, filosofia, historia...) gaztelaniaz eman ohi dira.

3.6. BEGIRADA BERRIA

Gainerako datuekin batera jaso nahi izan dugu dokumentu honetan erabilera eta euskarari buruz abian dagoen ikerketa baten berri, izan ere, begirada berria ekarri du eta datuak ulertzeko ikuspegi argigarria da. [Iñaki lurrebaso](#) ikertzailearen eskutik izan genuen aukera gertutik ezagutzeko.

Interbentzioak modu egokian planteatzeko, interesgarriak dira Elgoibarri buruko datuak:

Hizkuntza-gaitasuna, Elgoibar 2016 (*continuum* ikuspegitik behin-behineko kalkulua)




Iturria: guk landutako behin-behineko kalkulua, zentsuetako Elgoibarri buruzko datuetan eta ISLko Gipuzkoari buruzkoetan oinarrituta.

Iturria: Iñaki lurrebaso

- ↪ Elgoibarren **euskara nagusi duten elebidunak %23** dira eta **erdara nagusi duten hiztunak %56** Elgoibarren hiztunen **%23ri** bakarrik zaio **errazago euskaraz hitz egitea** erdaraz baino, eta aldiz, **erdaraz errazago** moldatzen direnak **%56** dira.
- ↪ Euskararen ezagutza maila sarritan irudikatu izan den baino nabarmen apalagoa da; euskararen erabilera, berriz, dagoen gaitasunerako eta arrazoi instrumentalengatik soilik, legokiokeen baino handiagoa.
- ↪ Indargune gisa, hizkuntza-gaitasunari buruzko datu berri hauek eta erabilera-datuak harremanetan jartzen baditugu, eta **dagoen gaitasun-mailarako erabilera handia** dela onartzen badugu, zeharkako ondorio pozgarri batera iritsiko gara lurrebasoren ustetan: “Euskaldungoa leiala da bere hizkuntzarekiko”

Elgoibarko euskaldunen profila (%)



- Erdalet elebidunek, nagusitasunik gabeko elebidunek, euskaldun hartzaileek eta euskaldun elebakarrek osatzen dute EUSKALDUNEN multzoa.
- Horietatik, euskal gaitasuna nagusi dutenen kopurua % 23 da.

Iturria: Iñaki Iurrebaso

- Ondorio nagusia honakoa da: “Erabilera maila handia da, dagoen gaitasunerako”

JAKINGARRIAK

- Euskaldunek euskaraz eta erdaraz jarduteko duten erraztasunaren arabera, honela sailkatzen dira:
 - Euskal elebidunak:** erraztasun handiagoa dute euskaraz hitz egiteko erdaraz hitz egiteko baino.
 - Elebidun orekatuak:** euskaraz zein erdaraz erraztasun bera dute.
 - Erdalet elebidunak:** erraztasun handiagoa dute erdaraz hitz egiteko euskaraz hitz egiteko baino.
- EAE n 16 urte edo gehiagoko euskaldunen %26,8k **erraztasun handiagoa du euskaraz** hitz egiteko erdaraz hitz egiteko baino, hau da, euskal elebidunak dira. Elebidun orekatuak %29,3 dira. Azkenik, erdalet elebidunak %44 dira. Horrela, **erdalet elebidunek osatzen dute multzorik handiena**, eta **ehunekoa handiagoa da adinak behera egin ahala**.

Bukatzeke, **euskararekiko atxikimendua eta euskaltzaletasuna Elgoibarren handia** da. Hainbat dira erreparatu beharreko **adierazleak**:

Zeharkako adierazleak:

- Hauteskunde emaitzak (abertzaleek botoen %63,4 azken espainiar hauteskundeetan).
- Irakaskuntzako hezkuntza-ereduen bilakaera.
- Elgoibarko Izarra elkarteak 650 bazkide.
- Euskaraldian 1804-1.500 partaide.

EUSKARALDIKO DATUAK 2018-2020-2022

Une berezia eta erabakigarria izan da Euskaraldiak ekarri diguna, bai horixe, gure herrian eman nahi genuen jauzia Euskal Herri Osoan ere planteatu delako, Jaurilaritzari eta Euskaltzaleon Topaguneari esker. Helburua euskaraz hitz egin eta ulertzen duten herritarren arteko harremanetan hizkuntza ohiturak aldatzea, baita era guztietako erakunde eta elkarteak euskarazko hizkuntza praktikak babesteko neurriak hartzera bultzatzea ere.

Erabileraren beheranzko joera hori aldatzeko asmoz, Euskaraldia izeneko ariketa soziala antolatu da 2018an, 2020an eta 2022an, eta ikusteko dago arrastorik utzi ote duen Elgoibarren. Ea zer esaten diguten hurrengo erabilera datuek.

Euskaraldiaren lehen edizioa 2018an burutu zen, “Euskaraldia: 11 egun euskaraz” lelopean. Bigarren edizioa, berriz, 2020an izan zen, “gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan” lelopean, eta hirugarrena, 2022an izan da, azaroaren 18tik abenduaren 2ra bitartean, “Hitzez egiteko garaia” lelopean.

Euskaraldia	Emakumeak	%	Gizonezkoak	%	GUZTIRA
1. edizioa 2018	1.115	61,84	688	38,16	1.803
2. edizioa 2020	888	59,24	611	40,76	1.499
3. edizioa 2022	909	60,00	603	39,80	1.515

Iturria: Elgoibarko Udala

Emakumeak gehiago izan dira hiru edizioetan.

Hiru edizioetan, 31-50 adin-tartea nagusitu da %47-48koa izan baita adin horretakoen parte-hartzea, eta horietako gehienak Ahobizi izan dira.

Euskaraldia	Ahobizi	Belarriprest	Entitateak	Ariguneak
1.edizioa 2018	1.245	558		
2.edizioa 2020	1.084	415	104	419
3.edizioa 2022	1.091	424	103	366

Datuak ikusita, 2022ko edizioan ere parte hartze datuak mantendu egin direla esan daiteke. Hiru edizioak kontuan hartuta 31-50 adin-tartea nagusitu da, %47koa izan da adin-tarte horietakoen parte hartzea eta gehienak Ahobizi izan dira. Ariguneei dagokienez, azken edizioan 103 entitatek parte hartu dute, Elgoibarren dauden entitateen % 15ek, eta 366 arigune sortu dituzte.

4. AZTERKETA KUALITATIBOA

Guztira, 2018tik 2023ra bitartean Elgoibarko Udalak 77 ekintza jarri ditu abian esparru desberdinetan. Esparruz esparru ekintza kopurua 2018-2023 plangintzaldian:

JABEKUNTZA	Familia bidezko transmisioa	7
	Irakaskuntza	11
	Euskalduntze-alfabetatzea	5
	Kanpoko jatorriko herritarrak eta kulturartekotasuna	6
ERABILERA	Aisia, kirola, gazteak	18
	Arlo sozioekonomikoa	12
ELIKADURA	Kulturgintza	14
	Kultura, ondarea eta ikerketa	4

Iturria: Euskara Saila, Elgoibarko Udala

2018tik 2023ra bitartean abian jarritako ekintza-planaren betetze-maila altua izan da, % **94,55**koa.

Pandemia urteak izan arren, azpimarratzekoa da Udalak ESEP 2018-23 planaren baitan abian jarritako **ekintza eta egitasmo berriak**: Bertso Eskola, Idazle kluba, *Laburbira* zikloa, *Idazlan lehiaketak* eta idazlan sarituen *liburuxka*, Komunikazio edo sormen saioak eskoletan, *Eusliderrak* egitasmoa, *Debarreneko*

Euskararen Ginkana, Guraso euskaldunei eta erdaldunei zuzenduriko *Infografiak*, *Hazi hezi aldizkariaren* harpidetza guraso izan berrientzat, *Erasmus+* egitasmoa, bertako nerabeak hizkuntza gutxituei buruz hausnartzeko, *Aniztasuna ikasgai* egitasmoa...baita euskararen erabilera teknologiarekin lotzen dutenak, *Robotika eta Bizilabe* egitasmoak...

Eta aipatzekoak baita ere **Elgoibarko Izarrarekin elkarlanean abian jarritakoak** plangintzaldi honetan: *Euskara laezkara* web ataria, *Herriko Euskalgintzaren eta Kulturgintzaren diagnosis*, *Biba Hasier* egitasmoa, *Euskaraldia*, *Haurren aurrean helduak heldu* ekimena, *Betikoa*.*Gertukoa* kanpaina, *Atera selfiea* kanpaina, *Etzerako transmisio materiala*, *Esaldi lehiaketa*, *Errenta aitorpenak euskaraz* egiteko kanpaina, *Euskarara Hurbiltzen* egitasmoa...

Ekintza berriei erreparatuta, **esan genezake oparoa izan dela plangintzaldi hau**, eta Udalak, pandemia urteetan ere, ahalegin berezia egin duela horiek guztiak antolatzen, finantzatzen edo diruz laguntzen. Hala ere, kontuan izan behar dugu ekintza batzuk puntualak izan direla, eta beste batzuk, aldiz, urtez urte errepikatzen direnak.

Eta bada beste kontu bat aipatzea merezi duena, plangintzaldi honetan, Elgoibarko Euskalgintzan eta Kulturgintzan eragin handia duen eta izango duen azpiegitura berri bat jarri duela abian Udalak: **Aita Agirre kulturgunea**. 2019ko irailean ireki zituen ateak Aita Agirre kulturguneak. Erabilera anitzeko espazioa, moldagarria, herriaren erdi-erdian, eta goizetik iluntzeraino zabalik dagoena, herritarren eskura. Euskalgintza eta Kulturgintza arloko hainbat eragile biltzen dituen gunea: Udal Liburutegia, Udal Euskaltegia, Elgoibarko Izarra elkarteak, KZgunea eta Kultura, Euskara, Berdintasuna eta Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko udal sailak. Eragile horiek guztiak kulturgune berean biltzeak elkarlanerako aukera paregabea eskaini digu, baita, norabide berean lan egiteko eta gure herrian euskara eta kultura sustatzeko ere.

Elgoibarren euskara sustatzeko planari ekarpenak jasotzeko bileretan eta elkarrizketetan aztertu dugu euskararen gaur egungo egoera, ahuleziak eta indarguneak definitu ditugu, eta euskararen egoera hobetzeko proposamenak landu ditugu. Arlo guztietan dago zer hobetu eta ekarpen ugari jaso ditugu bai taldeka egindako bileretan baita banaka egindako elkarrizketetan ere. Proposamen horiekin elikatu dugu Euskara Sustatzeko Plana, beraz, eskertzekoa da herritar horien guztiek izandako prestutasuna eta eskainitako laguntza.

Jarraian jaso dugun irudian labur jaso dugu elkarrizketetan jasotakoa: **ondo egindakoak** eta **hobetzeko arloak**, esparru desberdinen arabera.

FAMILIA TRANSMISIOA, IRAKASKUNTZA

ZERTAN GABILTZA ONDO? ↑

- Elgoibarren euskaraz bizitzeko aukera dago.
- Errefortzu klaseak daude zailtasunak dituztenentzat.
- Umeentzako antolatzen diren ekintzak egokiak dira: jolasak, euskarazko produktuen katalogoa...
- "Hurbiltzen" egitasmoa interesgarria da.
- Gurasoekin lan egiten da.
- Irakasleek hizkuntzarekiko jarrera tinkoa dute .
- Ikastetxeetan kanpainak eta taldeko lehiaketak eta sariak sustatzen dira.
- Proiektuen bidez lan egiten da: Elgoibarko pertsona erreferenteak eskolara eramaten dira.

ZERTAN GAUDE AHUL? ↓



- Guraso euskaldunen artean gaztelanirako joera dago.
- Gatazkak: mezuak euskaraz edo ele bietan egin behar dira? Bilerak euskaraz edo bietan? Gai hori ez dago beti argi, itxuraz.
- Komunikazioan huts egiten da.
- Egiten den inbertsioa (saiakera, ekintza asko) eta erabilera-eremak (kaxkarrak) ez datoz bat.
- Sumatzen da irizpideak gehiago direla pertsonenak (adibidez, irakasleenak) erakundearenak baino.

<p>NON JARRI BEHAR DITUGU INDARRAK?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Sentsibilizazioa gehiago landu behar da. • Guraso euskaldunak eredu izan behar dira. • Kontzientzia (=esfortzua) landu behar da. Mugimendu kontzientea bultzatu behar da. • Erreferentziazko hizkuntza beti euskara izan behar da (komunikazioetan, ikus-entzunezkoetan, etab.) 	<p>ZER JORRATU BEHAR DUGU ETORKIZUNEAN?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Euskara lantzeko metodoak bilatu behar dira, hizkuntzarekin eroso egoteko. • Kultura nahasketa indargune gisa ikusi behar da, mehatxu gisa ikusi beharrean: aberastasuna da. • Irakasleek gurasoei hizkuntzaren inguruan ematen dieten mezua landu behar da, mezua argia eta garbia izan behar da. • Herri euskaldunagoen eredu jarraitu behar da, ondo egiten dituzten gauzetatik ikasi eta haiek hasitako bidea jarraitu behar da.
---	--



EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA

<p>ZERTAN GABILTZA ONDO? ↑</p> <ul style="list-style-type: none"> • Tertuliak ondo baloratzen dira. • Tutoretzak ondo baloratzen dira. Eraitza onak ematen dituzte. • Ikasleekin egiten den gogobetetze-inkesta tresna baliagarria da euskalduntze prozesuan hobetzeko. • Euskaraz aritzeko zailtasunak izanda ere, euskaraz egiteko ahaleginari eusten zaio (urte osoan belarriprest edo ahobizi). • Ahoz ahoko informazioak indarra du. • Harreman on asko egiten dira euskarari esker. Ate berriak zabaltzen dira euskarari esker. • Euskaraldia ekimen egokia da. Oso ideia onal 	<p>ZERTAN GAUDE AHUL? ↓</p> <ul style="list-style-type: none"> • Euskararen ikaskuntza titulazioak lortzearekin lotzen da sarritan. • Eskolen bidez egiten diren euskara ikastaroen kanpainetatik ez dator gurasorik. • Herritarrek ez dute barnetegien berri edo beste eskaintza batzuen berri.
<p>NON JARRI BEHAR DITUGU INDARRAK?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Tertulietan parte hartzen duten ikasleen kopurua handitu behar da. • AISA ikastaroak indartu behar dira. • Euskara ikastea doakoa izan behar da. • Udalarekiko elkarlana sustatu behar da (Ongizatea, adib.) ikastaro espezifikoak antolatzeko. 	<p>ZER JORRATU BEHAR DUGU ETORKIZUNEAN?</p> <ul style="list-style-type: none"> • EPArekiko koordinazioa sendotu behar da. Elgoibarren badago, baina euskararik ez da irakasten. Gaztelania bai. • Onlineko formatuak bultzatu behar dira euskara ikasteko. • Euskara ikasteko metodologia berriak landu behar dira: Ulersaioak, Ulerizketa... • Lan-esparria euskara praktikatzeko aukera bihurtu behar da (euskara inguru hurbilean ez dutenentzat). • Euskara ez dakitenei euskararen balioa erakutsi behar zaie, euskara ikastera anima daitezen. • Euskarabentura bezalako ekimenak asteburuetan ere egin behar dira.

GAZTEAK

<p>ZERTAN GABILTZA ONDO? </p> <ul style="list-style-type: none"> • Euskaraz aritzeko hizkuntza-estrategiak erabiltzen dira: “Euskaraz egingo didazu? Erosoago nago” moduko esaldiak, harremanak euskaraz izan daitezzen. • Formazioa izateak laguntzen du. Gazteen inguruan dabilzan hezitzaileak baliagarriak dira harremanak euskaraz izan daitezzen. • Udalaren eskaintza kulturala. Adibidez, musika eskaintza egokia da (Zetak, Bulego...) 	<p>ZERTAN GAUDE AHUL? </p> <ul style="list-style-type: none"> • Adinean aurrera egin ahala, familiaren hizkuntza ohiturak gaztelaniara aldatzen dira. • Euskararekiko abxikimendua lantzeko antolatzen diren hitzaldiak ez dira erakargarriak, oro har. • Hizkuntzaren kalitateari garrantzia handiegia ematen zaio. Presioak eta atzerakadak sor ditzake. • Batzuetan, euskaraz egitera behartzen da. • Tabernetan musika erderaz izaten da askotan. Ez dago euskarazko musikarik. • Euskara “arlo” formalarekin eta akademikoarekin lotzen da, eskolarekin. Ekintza kulturalak eskolaren bidez zabaltzen dira.
<p>NON JARRI BEHAR DITUGU INDARRAK?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kontzientzia lantzea. • Euskara balio bezala transmititzea. • Tabernetan lehen hitza euskaraz egiten hastea. • Euskara prestigioarekin lotzea. “Ondoan duzunak edo zure erreferente denak euskara erabiltzen badu... zuk ere erabiliko duzu” 	<p>ZER JORRATU BEHAR DUGU ETORKIZUNEAN?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gazteengana iristeko beste bide batzuk erabili behar ditugu, batez ere, sare sozialak, Instagram.... • Gazteen bilgune diren taberna eta gune jakinak baliatu behar dira euskararen zabalkunderako. • Euskararen ahoz ahoko jardunari garrantzia eman behar zaio. • Gazteen inplikazioa landu behar da euskararen alde aritzeko. Euskararen sarea sortu behar da laguntzeko. • Digitalizazioaren arloa landu behar da, gazteentzat erakargarriak diren produktuak behar dira (joko...) • Euskalkiaren bidez gazteak euskarara hurbiltzeko saiakera egin behar da. • Euskararen aldeko jarduerak aisialdiarekin lotu behar dira.

AISIA ETA KIROLA



<p>ZERTAN GABILTZA ONDO? </p> <ul style="list-style-type: none"> • Klubetan aldaketa handiak egin dira sasoi batetik hona euskararen mesederako. 	<p>ZERTAN GAUDE AHUL? </p> <ul style="list-style-type: none"> • Arriskua dago zuzendaritza aldaketekin euskararen erabilera atzera egiteko. • Erreferentzia erdaldunak daude, aldatzea kosta egiten direnak: CD Elgoibarren ereserkia... • Gurasoak ere entrenatzen ibiltzen dira ez delako beste aukerarik egoten, eta guraso batzuek ez dakite euskaraz.
--	--

<p>NON JARRI BEHAR DITUGU INDARRAK?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kirolari erreferenteekin hitzaldiak edo ekimenak antolatzea. • Hezitzaileekin ikastaroak egitea. • Hezitzaileen titulazioa / formazioa euskaraz izatea. • Entrenamenduetan aritzen diren gurasoek euskaraz gehiago egitea • Partidu eguna "janztea" garrantzitsua da: musika jartzea, zozketak, speaker lanak..., eta hor lekua eman behar zaio euskarari. 	<p>ZER JORRATU BEHAR DUGU ETORKIZUNEAN?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Euskara Zerbitzuak laguntza gehiago ematea, eta klubetara gerturatzea: adibidez, euskara sustatzeko saioak entrenamenduetan, entrenatzaileekin saioak... • Entrenamenduetan aritzen diren gurasoak euskaraz jarduteko trebatzea. • Elkarrekin komunikazioak eta euskaraz egiten jarraitu behar dute. Horretarako behar duten laguntza eman behar zaie. • Zuzendaritza taldeak aldatzearen ondorioz, euskararen erabilera atzera ez egiteko ahalegina egin behar dugu.
---	---

ARLO SOZIOEKONOMIKOA

<p style="text-align: center;">ZERTAN GABILTZA ONDO? ↑</p> <ul style="list-style-type: none"> • Udalak laguntzak ematen ditu errotulazioa eta irudi korporatiboa euskaraz jartzeko. • Lehenengo hitza beti euskaraz egitea, eta errotulazioa eta menuak ere euskaraz egotea. 	<p style="text-align: center;">ZERTAN GAUDE AHUL? ↓</p> <ul style="list-style-type: none"> • Udalak abian dituen proiektuak ez dira ondo ezagutzen. • Merkataritza Elkarrekin egiten diren bileretan euskara eta gaztelania nahasten dira bilerak • TicketBAi sistemak albo kalteak eragin ditu: hasieran gaztelaniaz eskaini zaie, eta orain euskaraz erabiltzeko aukera bada ere, kaltea eginda dago. • Euskaraldia oso estrukturala da, pedagogikoa agian. • Kasu batzuetan zailtasunak daude bezeroa euskaraz artatzeko. Ez da erraza euskaraz dakiten langileak aurkitzea.
<p>NON JARRI BEHAR DITUGU INDARRAK?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Merkataritza Elkarrekin formazio saioak euskaraz antolatu behar ditu, baita euskarari buruzkoak ere. • Stockferia: euskarak presentzia indartsua izan behar du. Sarien sistema. • Egunerokoan jardutea, euskaraz egitea. 	<p>ZER JORRATU BEHAR DUGU ETORKIZUNEAN?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Udalaren eta sektorearen artean harreman sistematikoagoak izan behar dira • Sare sozialetan euskararen presentzia zaindu eta sustatu egin behar da. • Indartu egin behar da onlineko salmentetan euskaraz ere edo nagusiki euskaraz egiteko aukera (adib. ElgoibarKlik) • Errotuluak eta irudi korporatiboa euskaratzeko dirulaguntzak emateaz haratago, euskararekiko konpromisoa eskatzea, norberaren neurira egokitua.

KULTURA ETA ONDAREA

<p>ZERTAN GABILTZA ONDO? </p> <ul style="list-style-type: none"> • Elkarte batzuek elkarlanean eta koordinatuta dihardute. "Musikak biltzen gaitu". Horrelako ekimen gehiago behar dira. • Elkarte eta erakunde asko arduratzen dira haumen heziketaz, kulturaz eta aisialdiaz, eta emaitza onak lortzen dituzte. • Administrazioak laguntzaile, bideratzaile eta koordinatzaile papera du. • Euskarazko ondarea biltzeko ahalegina egiten da. • Udaleko agenda kulturala tresna garrantzitsua da komunikaziorako eta ekintzen berri izateko. 	<p>ZERTAN GAUDE AHUL? </p> <ul style="list-style-type: none"> • Nerabeentzako kultura eskaintza urria da. • Kultur Kafean euskal kulturaren eskaintza urria da. • Tabernetan ez dago euskal musikarik eta euskal girorik. • Ez da erraza gazteak kultur ekintzetara erakartzea; izan ere, lokaletan elkartzeko joera dute.
<p>NON JARRI BEHAR DITUGU INDARRAK?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Dirulaguntza eta beka gehiago behar dira sormenerako. • Euskaingintzako eta kulturgintzako eragileen arteko harremana sendotu egin behar da, eta ekimen bateratuak antolatu emaitzak hobetzeko. • Kulturaren kontsumoa indartu egin behar da, bereziki, gazteen artean. • Kultura literarioa gehitu egin behar da. • Gotzon Garate Bekarekin jarraitu behar da. • Adin guztietarako kultura eskaintza sustatzen jarraitu behar da, bai areto ixkietan bai espazio irekietan. 	<p>ZER JORRATU BEHAR DUGU ETORKIZUNEAN?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gazteria inplikatzea kultura sortzen eta antolatzen. Sormenerako eta proiektuak lantzeko espazio bat. • Haurrei antzerkian aritzeko aukera eman behar zaie. • Teknologia berriez baliatu behar da kultura eta ondarea sustatzeko. • Laguntza pribatuak eman behar dira kulturgintzara erakartzeko. Industria-Kultura arteko loturak egin behar dira. • Urruti sumatzen ditugun kulturekiko harremana estutu behar da. • Euskarazko ondarea biltzen jarraitu behar da. • Gazteak euskarazko kultur eskaintzara hurbiltzeko ekitaldi erakargarriak antolatu behar dira.

5. AURRERA BEGIRAKOAK

Esparruz esparruko hausnarketa laburra ekarri dugu atal honetara.

FAMILIA TRANSMISIOA

Familia transmisioa berebiziko esparrua izango da Elgoibarren, batez ere, jatorri askotariko herritarren kopurua urtez urte asko hazten ari delako, eta datuei erreparatuta, ikusten da joera goranzkoa dela.

Hainbat ekintza errotuta daude, dagoeneko, esparru honetan eta haiek mantentzea egokia litzateke. Hala ere, pisu berezia hartuko dute jatorri askotariko herritarrak euskarara gerturatzeko ekimenek. *Auzoko (Elkarrizketak)* egitasmoak eta *Berbazulo* eta *Mintza On* ekimenak, esaterako.

HEZKUNTZA

Esparru hau garrantzitsua da euskaldunak sortzeko, eta euskararen erabilera bultzatzeko ezinbesteko oinarria ere bada. Orain arteko dinamika mantentzea da helburua, hezkuntzan dabiltzan eragileak indargunez jabetzea eta esparru honetan ondo egindakoak finkatzea.

Hizkuntza premia berezia duten ikasleen kasuan, Berbazulo bezalako ekimenen eraginkortasuna aztertzea komeni da, baliabideak zeintzu diren ikusi eta hobetu beharrekoak identifikatzea.

Hezkuntza Mahaiak urtebete egin du Elgoibarren eta euskara zeharka landu da uneoro. Horrez gain, esparru honetan, Elgoibarko ikas zentroetan zuzendaritzetan aldaketak izan dira eta momentu gakoa izan daiteke. Maila orokorragoan, berriz, Hezkuntza lege berriak ekar ditzakeen aldaketak ere garrantzitsuak izan daitezke, besteak beste, euskarari dagozkion aldaketak ere izan daitezkeelako.

EUSKALDUNTZEA ETA ALFABETATZEA

Hiztun berriak sortzea gako garrantzitsua da euskararentzat. Euskaltegiek egiteko garrantzitsua dute helburu hori lortzen laguntzeko. Metodologia berriak landuz, helburu mailakatuak proposatuz (ulermena lortzea) eta ikasleei euskara erabiltzeko espazioak proposatuz (Tertuliak), ikasle berriak (bestelako hartzaile mota bat) erakartzea jarri behar da jomugan.

Euskaltegien dinamika indartzea komeni da eta egungo errealitate eta beharretara egokitzea. Horretarako, eskaintza ugaria eta anizkoitza izatea baliagarria izan daiteke. Maila baxuetako taldeak ere sustatu beharko lirateke, belarriprestak areagotzeko. AISA ikastaroak eskaintzen jarraitzea ere ezinbestekoa da, eta hori ez ezik, erronkatzat hartzea AISA I egiten dutenak AISA II egitera animatzea, eta hortik aurrera, ohiko euskalduntze prozesuarekin jarraitzea.

ARLO SOZIOEKONOMIKOA

Merkataritza-ostalaritza arloan orain arteko lanarekin jarraitzea egoki ikusten da, sustapen lanarekin aurrera egitea, alegia. Industria arloan berriz, badira Elgoibarren euskara plana abian duten enpresak. Erreferenteak dira beste batzuentzako eta urratu duten bidea bide-erakusle izan daiteke beste batzuentzat. Zerbitzu enprekin berriz, egokia litzateke poliki-poliki euskararen erabilera sustatzeko ekimenak abian jartzera animatzea kolektibo hau, eta helburu xume batzuk zehaztea arlo sozioekonomikoan euskararen sustapenerako.

Sustapen ekonomikorako udal sailaren gidaritza garrantzitsua izan daitekeela ikusten dugu. Arlo sozioekonomikoan euskararen erabilera sustatzeko Udalak eta Jaurlaritzak ematen dituzten dirulaguntzak ere lagungarriak izan daitezke, baita Euskaraldia bezalako ekimenak ere. Helburuen artean honakoak ikusten ditugu:

- ↪ Merkatarien taldea berraktibatzea. Orain arteko lanaren balorazioa egitea.
- ↪ Dendari-ostalarien eta bezeroen arteko harremanetan euskararen erabilera sustatzea.
- ↪ Euskararen marka berria, Jaurlaritzak abian jarri duena, gizarteratzea herriko establezimenduetan.

KULTURA, ONDAREA ETA CORPUSA

Euskal kulturak berebiziko garrantzia dauka euskararen transmisioan eta erabileran. Azken urteotan, euskal kulturaren kontsumoa handitzeko ekimenak bideratu dira. Orain arte egindakoa mantendu eta indartu beharra ikusi da, baina datozen urteetan gazteei, bereziki, eta helduei zuzendutako eskaintza kulturaletan eragitea izango da gakoa. Kultur eskaintzari buruzko informazioa ematen zaie herritarrei (agenda, web orri, prentsa...) eta ahalegin berezia egiten da kultur emanaldiak euskaraz izateko, baina, bereziki, zaila egiten ari da gazteak erakartzea barruan antolatzen diren ikuskizun eszenikoetara.

Kultur ekintza asko burutzen dira eta guztien jarraipen ona egitea zaila da, agian eraginkorrenen alde egin behar da. Dagoeneko, abian dauden euskara arloko ekimen batzuk, udaleko beste sail baten helburuekin ere bat baldin badatoz, hortxe txertatzeko ahalegina egitea ondo legoke, hori delako ekimen horiek kudeatzeko dagokien gune naturala edo berezkoa.

Helburu nagusia euskarazko kultura eskaintza eta kontsumoa sustatzea litzateke, euskaraz eskaintzen dena ikusgarri eta erakargarri eginez. Euskarazko sorkuntza bultzatzeko egitasmoak abian jartzea ere interesgarri izan daiteke, bereziki, gazteak erakartzeko.

Ondareari dagokionez, esparru hau asko zaindu da urteetan zehar Elgoibarren, eta aurrera begira ere, mantentzekoa dela uste dugu. Ikerketa lanekin jarraitzea ezinbestekoa dela deritzogu, aurrera begirako helburuak lantzeko oinarria jartzen dutelako.

Corpusari dagokionez, Badihardugu elkartearekin lanean jarraitzea egoki ikusi da gure berbetia zaintzeko, jasotzeko eta gizarteratzeko. Euskararen Historia Sozialaren bilketaren eta zabalkundearekin ere jarraituko dugu, ezinbestekoa baita orain artekoa ezagutzea aurrera begira jartzeko.

AISIA, KIROLA eta GAZTEAK

Esparru oso zabala da, eta helburuak gehiago definitzeko beharra dago. Ekintza asko egiten dira, era guztietakoak. Kirolaren arloan egokia litzateke, batez ere orain arte egindako bidea finkatzeko eta atzera egitea saihesteko, Elgoibarko klubetan euskararen erabilera eta kirola bera sustatzeko ekimenak abian jartzea.

Kirolak prestigioa du herritarren artean, beraz, aproposa izan daiteke euskara ere erdigunean jartzeko, eta kirola eta euskara batera lantzeko, elkarrekin eta elkarrentzat izan dadin. Zalantzarik gabe, lehentazuneko arloa izango da Kirola datozen urteetan.

Aisialdian azken urteetan ibilbide bat egina dago eta komeni da egindakoa egonkortzea.

Gazteei dagokionez, lehenasuna duen esparrutzat identifikatu dugu eta lan egiteko modu berriak behar direla ikusten dugu, eurengana iristeko eta elkarlanean aritzeko. Udaleko Gazteria saila eta Gaztelekuak baliabide egokiak izan daitezke hori lortzeko.

Udaleko Gazteria eta Hezkuntza sailak, Hezkuntza mahaiaren bidez, abian jarri duen Aisialdiaren diagnosiak informazio lagungarria eskainiko digu hobetu beharrekoak identifikatzeko, eta aurrera begirakoak erabakitzeke.

UDAL ADMINISTRAZIOA

Udalak bere bidea jarraituko du euskararen erabilera sustatzen. 2022an, Udaleko Erabilera Planaren VI. Plangintzaldiari itxiera eman zion, eta 2023an, Plangintzaldi berri bati ekin zion. Udala eragile aktibo da eta erreferente euskararen sustapenean eta erabileran. Administrazioa izanik, erreferente eta eredu-garri izatea dagokio euskararen erabileran, aurretik joatea da bere erantzukizuna. Horregatik, herritarrak euskara gehiago erabiltzera animatzea izan daiteke Udalak izan dezakeen hurrengo erronka, eskaintza aktiboa egiteko bideak lantzea zehatzago esanda.

SENTSIBILIZAZIOA ETA MOTIBAZIOA

Euskararekiko atxikimendua handia dela aipatu da goiko lerroetan, Iñaki Lurrebaso soziologoaren ikerketarekin lotuta. Komeni da, beraz, indartsu mantentzea arlo hau. Hainbat adierazle aipatu dira atxikimendua adierazteko, nolabait, euskararen bizi-indarra iradokitzen dutenak: ekimen zehatz batzuetako parte hartzea, atxikimendua elkarte zehatz batzuetara, herriko zerbitzu batzuk euskaraz izatea... Ez genuke nahi ulertzea atxikimendua “kanpaina” huts gisa edo ekintza-sorta bat bezala, herri batek euskaraz bizitzeko egiten duen ahalegin bezala baizik. Hortik bizi-indarra.

Honen garrantzia kontuan izanik, elgoibartarren euskararekiko iritzi eta jarrerak ikertzea ondo legoke.

HEDABIDEAK

Euskarazko hedabideak laguntzea eta herritarren artean kontsumoa sustatzea estrategikoa da hizkuntzaren normalizazioari begira. Bertako informazioa gertu-gertutik eta euskaraz jasotzeko baliabideak izatea ezinbestekoa da euskararen normalizatorako.

Udalak diruz laguntzen dituen euskara egitasmoen artean BARREN astekaria da dirulaguntzarik handiena jasotzen duena, beraz, argi dago Udalaren babesa duela BARREnek. Joan den plangintzaldian, urrats garrantzitsua eman du BARREnek Debabarreneko gainerako euskarazko hedabideekin batera, eta DKT (Debabarreneko Komunikazio Taldea) proiektua jarri dute abian. Gipuzkoako Foru Aldundiak eragindako aldaketa izan da eta Debabarreneko udalak ere prest azaldu dira laguntzeko. Prozesu honetan Aholkularitza profesionala jaso du DKTK eta gastu hori diruz laguntzeko prest agertu dira Debabarreneko udalak. Eskualdeko proiektu komunikatiboa euskaraz izatea estrategikoa izan daiteke herritarrek herrian eta eskualdean gertatzen denaren berri euskaraz jasotzeko. Gainera, eskualdeko ikuspegi horrek eraginkortasuna areagotuko du, eta indartsuago bilakatuko dira bailarako euskarazko hedabideak. Bide horretan ezinbestekoa izango da, orain arte bezala, udalen babesa.

Elgoibarko Udalak begi onez ikusi du komunikazio proiektua eta babesten jarraituko du datozen urteetan.

Jarraian datorren atalean, Planaren oinarrietan sakontzen da gehiago.

5.1. PLANAREN OINARRIAK

Gauden une honek (aldaketa garaia, euskararen erabilerak goia jo ote duen sentsazioa, lege berriak...) urrutira begira jartzea eskatzen du, arnasa luzeko plana irudikatzea, alegia. Norabidea irudikatzea eskatzen du alde batetik eta egituraketa/antolaketa egokia ere marrazten hastea, bestetik.

Jarraian, plan hau prestatzeko parte-hartze saioetan aipatu diren hainbat oinarri:

→ **Euskarazko eskaintza eta erabilera Elgoibarko askotariko zerbitzuetan, publiko nahiz pribatuetan.** Herritarrekin harreman zuzena duten Elgoibarko zerbitzu publiko eta pribatuetan zerbitzua zein hizkuntzatan eskaintzen den eta zerbitzu hartzailearen eta zerbitzua ematen duenaren arteko komunikazioa zein hizkuntzatan den ezagutzeko argazkia osatzea aurreikusten dugu, hala nola: **establezimendu eta enpresak, elkarteak, ikastetxeak eta zerbitzu publikoak** (udala eta bere menpeko erakundeak). Horregatik, herriko azterketa soziolinguistikoa egitea ondo legoke.

Ohiko adierazleez gain, planari gehitu beharreko adierazleak direla uste dugu Elgoibarko euskararen erabileraren argazkia osatzera datozenak eta baliagarriak Elgoibarren euskarak duen osasunaren berri emateko. **Udalak eskaintza eta erabileraren sustapena** egingo du zerbitzu hartzaile nahiz emaileen artean.

→ **Eragile ezberdinekin elkarlana areagotzea**

Esaterako, finantza-erakundeak izan daitezke eragile garrantzitsuak arlo sozioekonomikoan eragiteko, baita euren bezeroengan, herritarrengan, eragiteko ere.

Ongizate sailaz gain, eta ikastetxeetako guraso elkarteez gain, Zabaltzen-Sartu elkarteak ere aukera bat izan daitezke jatorri askotariko herritarrengana iristeko, adibidez. Kanal bat gehiago izan daitezke komunikaziorako, intereseko informazioa zabaltzeko eta herritar horiek euskarara eta euskal kulturara hurbiltzeko.

HHI-EPA jatorri askotariko herritarrengana iristeko beste kanal bat izan daitezke eta eurekin elkarlanean aritzea interesgarri izan daitezke, modu horretan, HHI-EPARA gerturatzen direnen artean euskarari buruzko interesa pizteko. Elgoibarko Udalak hitzarmena dauka EPArekin eta hori izan daitezke marko egokia euskararen gaia kokatzeko.

→ **Herritarrak sentsibilizatzea eta motibatzea**

Herritarrak Elgoibarko gizarte bizitzan euskara gehiago erabiltzeko "motibatu" egin behar dira, euskararen inguruko mezu positiboak behar ditugu. Horrek berak ekar dezake bestelako esparruetan ere euskararen erabilera aktibatzea, hala nola, Elgoibarren zerbitzua eskaintzen duten erakundearen erabileraren aktibazioa, esaterako: dendak, era guztietako establezimenduak, udal zerbitzuak, etab. Neurri batean, Euskaraldiak dagoeneko eginga duen bideari jarraipena ematea da hemen irudikatzen duguna.

Dokumentu honetan aipatu dira Elgoibarren euskararekiko atxikimendua eta euskaltzaletasunaren adierazleak eta garrantzitsua da Elgoibarrek dituen ezaugarri horiek zaintzea eta elikatzea.

→ **Euskarari behar duen lekua ematea**

Badirudi azken urteetan euskarak prestigioa galdu duela, eta gaztelaniak eta ingelesak gora egin dutela, bereziki, gazteen artean. Ezinbestekoa da estrategia batzuk lantzea herritarren artean hizkuntza kontzientzia handitzeko eta erreferente izan daitezkeen elkarte eta norbanakoak identifikatu eta ahalduntzeko, horrela, erreferente horiekin elkarlanean jardunda, euskarari prestigioa emateko. Komunikazioa lantzea ere ezinbesteko da eskaintzen dena erakargarri egiteko.

↪ **Genero ikuspegia**

AROA Plan Estrategikoan genero ikuspegia kontuan izango dugu. Helburu gisa izango dugu:

- Emakumeen eta gizonen partaidetza inklusiboa lortzea
- Genero diskriminazioak, zuzenekoak zein zeharkakoak, saihestea
- Emakumeen zein gizonezkoen parte hartze orekatua sustatzea

Horretarako honako jarraibideak aplikatuko dira:

Sortzen diren talde, ekitaldi, lan-mahai eta parte hartze espazioetan

- Taldeen osaketarako genero irizpideak kontuan hartu. Partaideen artean oreka zaindu. Parte hartzen dutenen hitz hartzeak ere orekatuak izatea sustatu, emakumeei hitza hartzea erraztuz.
- Lan mahai, solas eta jardunaldietan emakumeen parte hartzea sustatu eta bermatu.
- Dagokionean, datuak generoagatik bereizita aurkeztu (proiektuak/ekimeneko parte hartzaileak).

Komunikazioa/Irudia/Euskarriak

- Euskarrietan irudi eta hizkera ez sexista bermatu.
- Genero estereotipoekin lotutako espresioak saihestu.
- Erabiltzen ditugun hausnarketa, adibide, lelo, esaldi... eta antzekoetan emakumeen ekarpenak ere ikusarazi.

Kontziliazio erantzunkidea eta denboraren kudeaketa

- Bilera zein bestelako ekimenen ordua zehazterakoan kontziliazio beharrak kontuan izan (saioak, bilerak, ekintzak).
- Deialdiak garaiz egin.
- Hasiera eta amaierako ordutegiak errespetatzeko, ezarritako denborak errespetatu.
- Errespetuzko jarrera erakutsi kontziliazio beharren aurrean.
- Bertaratu ezin duten norbanakoen ekarpenak jasotzea ahalbidetu, horretarako presentzialdia eskainiz eta pertsona horiei zuzenean galdetu eta ekarpenak egitera gonbidatuz.

Azpiegitura eta formatua

- Saioetarako espazioa antolatzerakoan (aulkiak, mahaiak...) kontuan hartu irisgarritasuna, partaidetza eroso, gertukoa ...

5.2. MISIOA, NAHI ESTRATEGIKOA, IKUSPEGIA

Erronkak, lan ildoak eta ekimenak zehaztu aurretik, nahi estrategikoa, misioa eta ikuspegia adostu ditugu.



Misioa

Elgoibarko herritar zein eragile guztientzako marko eta bide orri bat eskaintzea datorren hamarkadarako, euskal hiztunak aktibatu eta ahalduntzeko nahiz euskararen komunitatea sendotzeko, eta Elgoibar euskaldunago, justuago, ekitatiboago eta inklusiboagoa eraikitzen laguntzeko.

Aldian-aldian ebaluatu eta egokituko da plana, metodologia parte-hartzaile eta irekia baliatuz, gizarte eragileekin eta mugimendu sozialekin elkarlanean.



Nahi estrategikoa

Elgoibarren euskararen ezagutza eta erabilera sendotzea, herritarrak eta herriko eragileak saretu eta aktibatuta. Elgoibarko **herri bizitza** osatzen duten **eragile, elkarte, enpresa, establezimendu** eta **era guztietako entitateek** herritarrei eskaintzen dizkieten zerbitzuetan euskarazko eskaintza bermatzea. **Euskara ulertzea** gutxieneko baldintza bilakatzea eguneroko bizitzako esparruetan eta gozamina ardatz duten jardueretan.



Ikuspegia

Planaren ikuspegi nagusia, datozen urteei begira, hauxe da:

- Euskara ikasteko, lantzeko eta aberasteko dinamika indartuko da.
- Behar handienak dituzten herritarrei behar bezalako babes, laguntza eta erraztasunak emango zaizkie eta, euskara haiena ere badela sentituko dute.
- Euskararen ezagutza areagotuko da eta euskal hiztun aktibo gehiago izango ditugu.
- Euskara ulertzea gutxieneko baldintza bilakatuko da eguneroko bizitzako esparruetan eta gozamina ardatz duten jardueretan.
- Euskaraz bizitzeko aukerak zabalagoak izango dira; euskarak babesguneak izango ditu herri osoan.
- Elgoibarko herri bizitza osatzen duten eragile, elkarte, enpresa, establezimendu eta era guztietako entitateek herritarrei eskaintzen dizkieten zerbitzuetan euskarazko eskaintza bermatuko dute.

5.3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

Atal honetan jaso ditugu Elgoibarko 2024-2028 Euskararen Plan Estrategikorako zehaztutako helburu nagusiak, planaren oinarritzat jo ditugunak, eta ekintza posibleak izan daitezkeenak helburu bakoitza lortzeko.

OINARRIA	HELBURUAK	EKINTZAK
EUSKARAZKO ESKAINZA ERABILERA ETA ELGOIBARREN	<p>1. Helburua: Elgoibarko elkarteekin euskararen erabilera sustatzeko elkarlana bideratzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ↪ Euskararen erabileran erreferenteak diren edo izan daitezkeen elkarteak identifikatzea, eurekin elkarlana areagotzeko. ↪ Euskaren erabilera sustatzeko laguntza eta aholkularitza eskaintzea. ↪ Hizkuntza irizpideak lantzea kirol arloko eragileekin (<i>entrenatzaile, koordinatzaile, delegatu etab</i>). ↪ Puntu.eus entitatearekin elkarlana gauzatzea, sarean euskara gehiago erabiltzeko.
	<p>2. Helburua: Herriko establezimenduetan euskarazko zerbitzua areagotzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ↪ Merkataritza Elkartearekin elkartearekin harremana lantzea (konpromisoak lotzeko, helburuak...). ↪ Merkatarien eta ostalarien hizkuntza beharrei erantzuteko laguntza teknikoa eskaintzea (<i>hizkuntza-irizpideak sare sozialetan, hizkuntza estrategiak, euskara ikasteko saio berezituak...</i>) ↪ Errotuluak eta irudi korporatiboa euskaraz jartzeko dirulaguntzak ematea. ↪ e// Euskararen marka berria gizarteratzea herriko establezimenduetan.
	<p>3. Helburua: Elgoibarko enpresetan euskararen erabilera sustatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ↪ Elgoibarko enpresetan euskararen erabilera sustatzeko foroa sortzeko aukerak aztertzea. ↪ Elgoibarko enpresetan euskararen erabilera sustatzeko egindako lana ezagutzera ematea. ↪ Lanbide Heziketako ikasleek praktikak euskaraz egiteko sustapen lana. ↪ Udalaren eta Jaurlaritzaren dirulaguntza deialdien sustapena egitea.
	<p>4. Helburua: Herriko ikastetxeetan euskararen erabilera sustatzea modu sistematikoan.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ↪ Elgoibarko hezkuntza komunitatearen (<i>guraso elkarte, irakasle</i>) hizkuntza beharrak jasotzea. ↪ Hizkuntza irizpideak zehazteko edo berritzeko aholkularitza eskaintzea. ↪ Ikastetxeen hizkuntza planak Udalari jakinaraztea. ↪ Ikastetxeen artean praktika onak konpartitzea.
HERRITARREN ERABILERA	<p>5. Helburua: Herriko establezimenduetako bezero eta</p>	<ul style="list-style-type: none"> ↪ Kanpainak edo ekimenak antolatzea erabilera bultzatzeko. Adibidez, <i>Bidelagun</i> figura abian jartzea hizkuntza paisaia euskalduntzeko.

	erabiltzaileak aktibatzea.	<ul style="list-style-type: none"> ↪ Hobetzekoak eta ondo egindakoak jaso eta establezimenduei jakinaraztea. ↪ Euskaraldiaren lanketarekin batera, herriko establezimenduei laguntza eskaini, euskarazko jarduna errazteko.
HERRIKO ERAGILEEN SAREA SORTZEA ETA DINAMIZATZEA	6. Helburua: Eragile ezberdinak modu bateratuan eta norabide berean aritzea herrian euskara sustatzeko.	<ul style="list-style-type: none"> ↪ Euskara sustatzeko eragile izan daitezkeen elkarte eta norbanakoak identifikatzea, elkarlanerako prest izango direnak. ↪ Sektorekako taldeak antolatzeak aukera aztertzea. ↪ Elkarlanean euskararen erabilerari buruzko ekimenak zehaztea.
EUSKARAREKIKO ATXIKIMENDUA ETA MOTIBAZIOA	7. Helburua: Gogoetarako foro, jardunaldi eta abarren bidez, herritarrak motibatzea.	<ul style="list-style-type: none"> ↪ Ikerketen eta neurketen emaitzen berri emateko saioak, hitzaldiak... ↪ Soziolinguistika saioak, etorkizuneko Elgoibarri buruzko gogoetak... ↪ Euskaraldia bezalako ekimenekin herritarrak motibatzea euskara gehiago erabiltzeko. ↪ Familian euskara gehiago erabiltzeko ekimen erakargarriak antolatzea. ↪ Gazteak motibatzeak ekintza edo gune erakargarriak prestatzea.

6. ARDATZ ESTRATEGIKOAK (ikusi eranskina)

7. EGITURA

Plan estrategikoa aurrera eramateko honako egitura aurreikusten dugu. Horien arteko elkarlana eta bakoitzaren funtzioak zehaztea beharrezkoa dela irudikatzen dugu.

- ↪ Udaleko Euskara Saila
- ↪ Herritartasuneko Koordinazio taldea
- ↪ Herritartasun Batzordea
- ↪ Elgoibarko Izarra Euskara Elkartea
- ↪ Herrian euskara sustatzeko eragileen sarea

Horien arteko koordinazio sistematikoa arrakastarako gako garrantzitsua izango da. Jarraian, jaso ditugu lehenengo lauren egituraren funtzioak. Azkenaren funtzioak definitzear daude.

FUNTZIOAK

OSAKETA

Euskara Saila

- ~ Prozesuaren ikuspegi osoa izatea eta jarraipena egitea.
- ~ Planeko eragileekin harremanak eta elkarlanerako aukerak aztertzea.
- ~ Urteko Kudeaketa Plana proposatzea, ekintzak, ardura banaketa, adierazleak.
- ~ Prozesuaren amaieran, balorazioa egitea.
- ~ Erabaki organoetara proposamenak bideratzea eta ekarpenak jasotzea.

Euskara teknikaria
Zinegotzi arduraduna

Herritartasuneko Koordinazio taldea

- ~ Plan estrategikoari ekarpenak egitea.
- ~ Hartutako arduren deskargua egitea hala dagokionean.
- ~ Jarraipena egitea.

Herritartasun Batzordea

- ~ Euskara sailak eta Herritartasuneko Koordinazio taldeak egindako proposamenak aztertzea eta ekarpenak egitea.
- ~ Planaren balorazioan parte hartzea eta behar diren erabakiak hartzea.

Elgoibarko Izarra Euskara Elkarte

- ~ Elgoibarko Udalarekin sinatutako hitzarmeneko lanak bideratzea.
- ~ Euskara Sailarekin batera Kudeaketa Planaren egikaritzean parte hartzea eta deskarguak egitea hala dagokionean.
- ~ Amaieran balorazio txostena aurkeztea.

Kultura
Liburutegia
Ongizatea
Kirola
Gazteria eta Hezkuntza
Berdintasuna
Zinegotzi arduradunak

Zinegotzi arduradunak

Euskara Saila
Elgoibarko Izarra

Planean zehaztutako helburuei jarraipena egiteko mekanismoak ezartzea eta betetze maila aztertzea ere garrantzitsua izango da plana ebaluatzeko. Hitzarmenen betetze-maila edo jarraipena egiteko bestelako sistemak ere ezarri beharko dira.

8. ADIERAZLE OROKORRAK

Adierazleei dagokionez, berriz, aurreko lerroetan aipatutako ideien ARGAZKIA osatzeko datuak beharko ditugu, adieraziko digutenak bide onetik goazen ala ez. Dokumentu honen bukaeran, ARGAZKIA osatzeko estrategikoak diren adierazleak zehaztu dira:

ADIERAZLEAK

Euskararen
ulermena

Euskararen
erabilera eta
eskaintza

EUSKARAREN ULERMENA

Hiztun berriak behar ditu euskarak Elgoibarren eta **euskara ulertzeko gaitasuna** lortzea da prozesuaren lehen urratsa. Udalak bere politikak eta baliabideak helburu lorgarri eta zehatzetara bideratzea garrantzitsua izango da. Hala nola, AISA bezalako saioak, sektore zehatzetara bideratutako ikastaroak... behar dira hiztun berriak lortze bidean.

Euskara ulertzeko gai direnen datuaren bilakaera izan daiteke adierazlerik esanguratsuena.

ERABILERA ETA ESKAINTZA

Herritarrekin harreman zuzena duten Elgoibarko **zerbitzu publiko eta pribatuetan zerbitzua** ematen duenak **zein hizkuntzatan** egiten duen (eskaintza) eta zerbitzu hartzailearen erabilera zein den ezagutzea ariketa interesgarria izan daiteke. Argazki horiek lagungarri izango dira interbentzio zehatzak planteatzeko orduan.

Elgoibarko establezimendu, enpresa, elkarte, ikastetxe eta zerbitzu publikoetan euskararen erabilera sustatzeko lan egingo du Udalak herriko eragileekin batera. Horretarako eskuz esku lan egingo da erakunde-entitateekin eskaintza bermatzeko eta herritarrekin euskara gehiago erabiltzeko.

Euskaraldia bezalako ekimenak lagungarriak dira erabileran eragiteko. Udalak, Elgoibarko Izarrak eta Euskaraldiaren Talde Eragileak aurrera eraman dituen **ekimenak** eta **lortutako emaitzak** lirateke erreparatu beharreko alderdiak.

KUDEAKETA

Abian jarritako planaren osasun-maila egokia den ala ez jakiteko, **planaren betetze-maila** kuantitatiboari erreparatuko diogu, baita emaitza kualitatiboari ere.